

## AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA

El grupo municipal **PUEDE PASAIA(K) AHAL DU** presenta para su debate y aprobación, si procede, en el próximo pleno ordinario del mes de abril de este Ayuntamiento, la **MOCIÓN** a favor **“de la apertura como mínimo de un comedor escolar en Pasaia, durante el periodo vacacional”**.

### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS:

El incremento de la pobreza en general, está siendo una de las consecuencias más visibles de la crisis que venimos padeciendo desde al año 2008. Los niños/as son los últimos responsables de esta situación actual y sin embargo. Están sufriendo sus consecuencias de forma tan o más grave que otros colectivos y grupos sociales.

Los niños sufren la crisis en sus hogares cuando sus padres se quedan sin trabajo y sin ingresos, cuando sus familias y ellos mismos son desahuciados, cuando a consecuencia de los menores ingresos familiares, se empobrece la calidad de su alimentación o cuando no pueden recibir tratamientos médicos no incluidos en los sistemas públicos. Pero también repercuten en ellos las decisiones políticas de reducción de gasto público en ayudas a las familias, en becas escolares de comedor o libros de texto y tampoco son ajenos al impacto de las reducciones de presupuestos destinados a servicios sociales, educativos o de salud.

Es de justicia reconocer igualmente que el País Vasco cuenta con una protección social “muy buena, quizá la mejor de todo el Estado” y pese a que quizá por ello, no se den casos de malnutrición extrema infantil, si las hay de “subnutrición”. Hecho corroborado por las declaraciones del defensor del pueblo vasco-Ararteko, Iñigo Lamarca, en el año 2014.

Siguiendo con las declaraciones del Ararteko del 2014, cabe destacar que él mismo reconoce “que un 6’2% de las familias con hijos/as menores de 15 años sufren pobreza radical”. Matizando que “pese a que en Euskadi existe un buen sistema de protección social, tenemos un sector al que no llega a través de las ayudas públicas porque la RGI exige unos requisitos como el de estar empadronado y tener residencia efectiva en el País durante los 3 años anteriores ininterrumpidamente. Si no cumple este requisito, se aceptará el empadronamiento al menos con un año de antelación a la fecha de presentación de solicitud si se puede acreditar 5 años de actividad laboral remunerada”

En este contexto advirtió, por estas mismas fechas, que los casos de subnutrición han ido en aumento en Euskadi ascendiendo a 16.000 niños/as los que sufrían malnutrición, entendiéndose como malnutrición no como un problema de desnutrición crónica infantil pero si como subnutrición por ingesta de proteínas y de otros alimentos necesarios para el correcto desarrollo físico y psíquico.

Realidad que se va incrementando con el tiempo, ya que todas las cifras y estudios

aseguran que la desigualdad va creciendo año a año en todo el territorio nacional, no siendo ni la CAV, ni siquiera nuestro querido pueblo de Pasaia, la excepción que confirma la regla y la realidad del día de las organizaciones sin ánimo de lucro como “Banco de Alimentos”, “Cáritas”, “Cruz Roja”, etc. en sus informes anuales nos informan que la situación de precariedad, lejos de disminuir, va creciendo y se va acrecentando la brecha de la desigualdad.

Por lo expuesto anteriormente, el grupo municipal PUEDE PASAIA(K) AHAL DU, con esta moción lo que solicitamos es garantizar y asegurar que las y los menores en riesgo de exclusión no se vean privados de una alimentación adecuada cuando termine el curso escolar. Se trata de aplicar medidas para garantizar una alimentación mínima a los niños y niñas de familias seriamente afectadas por la crisis, en los períodos en los que no hay comedores escolares.

Pensamos que garantizar una adecuada alimentación infantil debe ser una prioridad para todos los poderes públicos y que un ayuntamiento debe dar respuestas inmediatas a los problemas de sus vecinos/as.

## **MOCIÓN**

Esta moción no tiene otro objetivo que el de ser una medida complementaria a otras globales ya existentes y que luchan por atajar el problema de la pobreza de una forma integral, pero que la realidad, siempre cabezota, nos demuestra que no son aún suficientes.

Por todo ello, el grupo municipal PUEDE PASAIA(K) AHAL DU, insta al ayuntamiento y al resto de grupos políticos a que lleguen a los siguientes acuerdos:

1.- Realizar una solicitud al Departamento de Educación del Gobierno Vasco, instándoles a que adopten las medidas necesarias para que, a través del centro público del municipio, se mantenga el servicio de al menos un comedor escolar en Pasaia durante el período de vacaciones estivales.

2.- La creación de una partida presupuestaria en el ayuntamiento de Pasaia para dar un servicio de comedor a los niños y niñas que hayan tenido la beca de comedor durante todo el curso escolar y que además se incluya a los niños y niñas en edad escolar de familias con dificultades económicas.

20 de abril 2017

Nerea González Bastardo

Portavoz grupo Puede Pasaia(K) Ahal Du

## **PASAIKO UDALBATZARI**

Puede Pasaia(k) Ahal Du Udal Taldeak mozio hau aurkezten du, Pasaian opor garaian, gutxienez, eskola-jantoki bat irekitzearen aldekoa; hurrengo udalbatzarraren gai-zerrendan sartu, eta Udalbatzak azter eta onar dezan.

### **ARRAZOIEN AZALPENA**

Pobreziaren igoera 2008az geroztik jasaten ari garen krisiaren ondorio latzenetakoa izaten ari da. Haurrek egoera honetan inolako ardurarik ez duten arren, haiek jasaten ari dira krisiaren ondorioak beste herritarrak bezainbeste edo gehiago.

Haurrek krisiaren ondorioak jasaten dituzte haien gurasoak lanik gabe eta diru-sarrerarik gabe geratzen direnean, etxetik botatzen dituztenean, diru-sarrerak gutxitzearen ondorioz haien elikaduraren kalitatea pobretzen denean, edo sistema publikoetan sartzen ez diren tratamendu medikoak jaso ezin dituztenean. Baina horrez gain, haiengan eragina dute familiei laguntzeko, jantokirako edo testu-liburuetarako gastu publikoa murrizteko erabaki politikoek; eta baita gizarte-, hezkuntza- edo osasun-zerbitzuetarako aurrekontuak murrizteko erabakiek ere.

Aitortu beharra dago, halere, Euskal Herriak oso gizarte-babes ona duela, agian Estatuko onena, eta horri esker ez dela ziur aski muturreko malnutrizio kasurik gertatzen, baina nutrizio urriko kasuak gertatzen dira. Iñigo Lamarca arartekoak 2014an egindako adierazpenetan berretsi egin zuen hori.

Arartekoak 2014an egindako adierazpen horiekin jarraituz, azpimarratzekoa da emandako beste datu hau ere: 15 urtetik beherako seme-alabak dituzten familien % 6,2k erabateko pobrezia jasaten du. Eta ñabardura hau egin zuen: Euskadin gizarte-babeseko sistema ona dugun arren, laguntza publikoen bidez ez gara sektore batengana iristen, izan ere, DSBE jasotzeko baldintza hau bete behar da: errolatuta egotea eta aurreko hiru urteetan herrialdean bizitu izana. Baldintza hori betetzen ez bada, eskaera aurkeztu aurreko urtebetean errolatuta egotea onartuko da, 5 urtetan lan-jarduera ordaindua izan duela egiaztatuz gero.

Testuinguru horretan ohartarazi zuen nutrizio urriko kasuak igo egin direla Euskadin, eta 16.000 haurrek sufritzen dutela malnutrizioa. Malnutriziotzat ez da hartzen haurren desnutrizio kronikoa, baina bai nutrizio urria, proteinagabeziatik, eta euren garapen fisiko eta psikiko egokirako beharrezko elikagaiak ez jateagatik.

Kopuru hori gorantz doa denborarekin, izan ere, ikerketa guztiek ziurtatzen dute desberdintasuna gora doala urtetik urtera lurralde nazional osoan, eta ez EAE eta ez gure Pasaia herri maitea ez dira salbuespena. Irabazi asmorik gabeko erakundeek (elikagai bankua, Caritas, Gurutze Gorria) ere horixe adierazten dute haien urteko txostenetan; alegia, prekarietate egoera ez dela murrizten ari; areagotzen ari dela, eta desberdintasunaren zuloa gero eta handiagoa dela.

Azaldutakoagatik, PUEDE PASAIA(K) AHAL DU udal taldeak mozio honen bidez, eskatzen du bazterkeria-arriskuan dauden adingabeek elikadura egokia izaten jarrai

dezatela, ikasturtea bukatzean. Neurriak ezarri behar dira, krisiak gogor eragindako familietako haurrei gutxieneko elikadura bermatzeko eskola-jantokirik ez dagoen garaietan.

Uste dugu haurrei elikadura egokia bermatzeak lehentasuna izan behar duela botere publiko guztientzat, eta udal batek berehalako erantzunak eman behar dizkiela bere herritarren arazoei.

## **MOZIOA**

Mozio honen helburua da neurri osagarriak ezartzea, pobreziaren arazoari irtenbidea emateko lehendik ezarritako neurriez gain; izan ere, errealitateak erakusten digu ezarritako neurriak ez direla nahikoak.

Azaldutakoagatik, PUEDE PASAIA(K) AHAL DU udal taldeak Pasaiaiko Udalarari eta udalean ordezkariak duten talde guztiei eskatzen die honako akordio hauek onartzeko:

1. - Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari eskatzea beharrezko neurriak har ditzala, udalerriko ikastetxe publikoaren bitartez, Pasaian udako oporretan gutxienez eskola-jantoki bat izan dadin.
2. - Aurrekontu-sail bat sortzea Pasaiaiko Udalean, ikasturte osoan jantokiko beka izan duten haurrei jantoki-zerbitzua emateko, eta zerbitzu horren barne sartzea zailtasun ekonomikoak dauzkaten familietako eskola-umeak ere.

2017ko apirilaren 20an

Nerea González Bastardo

Puede Pasaia(k) Ahal Du taldearen eleduna